En estos momentos, cuando superamos ya la fase de preparación y faltan poco más de tres meses para el inicio de un año que debe ser decisivo para reforzar la proyección exterior de nuestra ciudad, es el momento de redoblar las apuestas comprometidas y que cada uno de los agentes implicados en la Capitalidad Cultural 2016 asuman todos los compromisos y responsabilidades para asegurar que la iniciativa resulte el éxito que la sociedad donostiarra espera y merece.

Une batean gaude zeinetan, azken finean, inoiz baino garrantzitsua baita Donostia kulturaren hiriburua izatearen aldeko adierazpenak hezurmamitzea, ekonomiaren alorrean bereziki. Alde horretatik, Donostia 2016rako, *orain edo inoiz ez* da; hau da, erakundeek 2016rako aurrekontuetan orain ez jasotakoa, ezin izango da erabili gure hiriarentzat hain garrantzitsua den hitzordu hori sendotzeko.

Nos hallamos, en suma, en unos momentos en los que es más importante que nunca que los pronunciamientos de apoyo a la capitalidad cultural donostiarra se plasmen en realidades, especialmente en el apartado económico. En este sentido, para Donostia 2016 es ahora o nunca: lo que las instituciones no consignen ahora en sus presupuestos para 2016, no podrá ser utilizado para fortalecer una cita de tanta trascendencia para nuestra ciudad.

Horri dagokionez, asaldura eta desengainua eragin dizkigu parlamentu-izapidetze fasean dagoen Estatuko 2016rako aurrekontu orokorren proiektuan, Donostiaren kultur hiriburutzarako jasotako 1,5 milioi euroko kontu-sailak. Une erabakigarrienean apustu handia egin ordez, oso eskasa gelditzen den eta horrelako hitzordu batean eskatu ahal zaion inplikazioari inondik ere erantzuten ez dion ekarpen ekonomikoa aurreikusi du Gobernu zentralak. Uste dugu Gobernu zentralak, urte erabakigarri honetan, 4,5 milioi

En este sentido, hemos observado con alarma y decepción la consignación de 1, 5 millones de euros que el proyecto de Presupuestos Generales del Estado para 2016, que se halla en fase de tramitación parlamentaria, contempla para la capitalidad cultural donostiarra. Lejos de apostar fuerte en el momento decisivo, el Gobierno central prevé una aportación económica que se queda muy corta y que no responde ni de lejos a la implicación que cabe exigirle en una cita de estas características. Consideramos que la

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

euroko ekarpena egin behar duela orain arte adierazi dituen konpromisoei erantzuteko hala.

aportación del Gobierno central, en este año decisivo, debe ser de 4,5 millones de euros, respondiendo así a los compromisos expresados hasta el momento.

Hori dela eta, EAJ eta PSE-EE taldeek mozio hau aurkezten dute:

Por todo ello, los grupos municipales EAJ/PNV y PSE-EE presentan la siguiente moción:

MOZIOA

MOCIÓN

Donostiako Udalbatzak Gobernu zentralari erreklamatzen dio 4,5 milioi euro bitarte handitu dezala Estatuko aurrekontu orokorrek datorren urtean Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzara bideratuko duten ekarpen ekonomikoa.

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián reclama al Gobierno central que eleve hasta los 4,5 millones de euros la aportación económica que los Presupuestos generales del Estado para el próximo año destinarán a la Capitalidad Cultural Europea Donostia 2016.

Izpta.: Miren Azkarate

Izpta.: Ernesto Gasco

Donostia, 2015eko irailaren 4a".

Fdo. Miren Azkarate

Fdo. Ernesto Gasco

Donostia - San Sebastián, 4 de septiembre de 2015".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Miren Azkarate Villar andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación intervienen en este punto los/las señores/as D. Ernesto Gasco Gonzalo, D.ª Miren Azkarate Villar, D.ª Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 16. MOZIO ARRUNTARI AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA A LA TOTALIDAD A LA MOCIÓN ORDINARIA Nº 16 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**16. MOZIO ARRUNTAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN ORDINARIA Nº 16:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**III.2.1. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, gaueko aterpea urte osoan irekitzea dela eta.**

“Loïc Alejandro Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gaueko aterpea urte osoan irekitzea dela eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren 3an, gure udal taldeak interpelazio bat egin zion Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani Pertsonentzako

**III.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**III.2.1. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI Taldea relativa a la apertura del "Local del Frío" todo el año.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, relativa a la apertura del “local del frío” durante todo el año.

JUSTIFICACIÓN

El pasado día 3 de agosto la Concejala Delegada de Acción Social, Sra. San Roman, fue interpelada por nuestro Grupo Municipal en

Zerbitzuen Batzordean, Gaueko aterpea abuztuan zergatik ixten den azal zezan.

Zinegotzi ordezkariak emandako azalpenetatik ondorioztatu genuen ez dagoela arrazoi tekniko gaindiezinik baliabide hori urteko hamabi hilabeteetan ez irekitzeko. Hain zuzen, zerbitzu hori ematen hasi ziren urteko egunik hotzenetan inork kalean lo egin beharrik izan ez zezan, baina 2012an zerbitzua zabaldu eta urteko 11 hilabetetan irekitzen hasi ziren. Beraz, horrek berak adierazten du badela aterpearen premia.

Era berean, batzorde horretan, Aitziber San Romanek adierazi zuen haren atalak beste aukera batzuk bilatu zituela lotara aterpera joan ohi diren pertsona batzuentzat, eta onartu zuen ez direla konponezinak lokala mantentzeak eta zerbitzua ematen duen enpresarekin sinatutako kontratuak eragindako arazo teknikoak.

Beraz, uste dugu borondate politiko kontua besterik ez dela aterpea urteko 12 hilabeteetan irekitzea eta, hala, etxegabeek gaua igarotzeko leku bat izatea, kalean lo egiteak dakartzan arriskuetatik libre.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko gestioak, hala 2016ko aurrekontuan nola beste arlo batzuetan, Gaueko aterpea urte osoan irekitzeko, eta har dadila kontuan lokalak egiaz duen erabileraren arabera.

la Comisión de Servicios a las Personas, para que explicara las razones por las que el llamado “local del frío” se cerraba el mes de agosto.

De las explicaciones dadas por la Concejala Delegada, dedujimos que no había razones técnicas insuperables que imposibilitaran la apertura de este recurso durante doce meses al año. De hecho, un servicio que se inició para impedir que hubiera personas durmiendo en la calle en los días más fríos del año, se fue incrementado hasta pasar en 2012 a abrir durante 11 meses al año, lo que de por sí ya indica la necesidad del mismo.

Asimismo, en la citada Comisión, la propia Sra. San Roman manifestó que su Departamento había buscado alternativas para varias de las personas que suelen acudir a ese centro a dormir, y reconoció que los problemas técnicos derivados del mantenimiento del local y del contrato con quien presta el servicio pueden solucionarse.

Por lo tanto, entendemos que es tan solo cuestión de voluntad política que ese centro permanezca abierto los 12 meses del año, de manera que las personas sin hogar tengan un lugar donde poder pasar la noche sin verse expuestas a los riesgos de hacerlo en la calle.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que realice las gestiones oportunas, tanto en el presupuesto de 2016, como de otra índole, para que el llamado “local del frío”, permanezca abierto todo el año, y se considere albergue nocturno en consonancia con el uso real del local.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Loïc Alejandro:
Irabazi Donostiako zinegotzia".

Loïc Alejandro:
Concejal de Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Olaia Duarte López andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Jose Luis Arrúe Pintó jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Loïc Alejandro, Dª Olaia Duarte López, Dª Aitziber San Roman Abete y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 - (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

---------------

**III.2.2. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Aste Nagusiko hamaiketakoa dela eta.**

"Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2015eko irailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko irailaren 14ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, interpelazio bat egin genion alkateari, 2015eko abuztuaren 12an

**III.2.2. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el hamaiketako de Semana Grande.**

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control consecuencia de la interpelación realizada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado día 14-09-2015

JUSTIFICACION

En la interpelación realizada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado día 14-09-2015 al Sr. Alcalde sobre el hamiketako de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

egindako Aste Nagusiko hamaiketakoa dela eta, eta alkateak esan zuen jaiak antolatzen aritzen diren elkarteen lana aitortzeko ekitaldi bat dela.

Semana Grande celebrado el día 12-08-2015, éste dijo que consideraba que era un acto de reconocimiento de la labor que diferentes colectivos realizan en la organización de las citadas fiestas.

Uste dugu garrantzitsua dela talde horiek egiten duten lana ikusaraztea, batez ere modu boluntario eta altruistan jarduten duten taldeena. Hala ere, uste dugu ekitaldi hori, non udaletxe barruan esker oneko hitz batzuk esan eta hamaiketako bat egiten den, herritar gutxi batzuengana baino ez dela iristen eta herritar gehienek ez dakitela, ez zergatik egiten den, ez eta parte hartzaileak zer irizpideren arabera hautatzen diren ere.

Consideramos importante visualizar la labor que esos colectivos llevan a cabo, especialmente la de aquellos que lo hacen de manera voluntaria y altruista. No obstante consideramos que un acto dentro del Ayuntamiento consistente en unas palabras de agradecimiento y un hamaiketako, no llega a la inmensa mayoría de la ciudadanía que desconoce la razón de ser del mismo y los criterios con los que se selecciona a las personas que participan en él.

Hori dela eta, uste dugu aldatu egin beharko litzatekeela lan hori aitortzeko modua.

Por todo ello, consideramos que debería cambiarse la manera de llevar a cabo el reconocimiento a esa labor.

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari Aste Nagusiko hamaiketako tradizionalaren ordez antola dezala beste ekitaldi bat, gune publikoan eta herritar guztientzat, jaiak antolatzen parte hartzen duten taldeen lana aitortzeko eta talde horietako bakoitzak zehazki zer lan egiten duen ikusarazteko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que sustituya el tradicional hamaiketako de Semana Grande por un acto de reconocimiento a la labor de los colectivos que participan en la organización de la misma, por un acto que se celebre en un espacio público abierto al que puedan asistir los y las ciudadanas interesadas y que visibilice la labor concreta que cada uno de esos colectivos lleva a cabo.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari aurkez dezala, bi hilabeteko epean, aitortza ekitaldi hori antolatzeko proposamen zehatz bat, aurreko puntuko planteamenduan oinarritua.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que presente en el plazo de dos meses una propuesta concreta para la celebración del citado acto de reconocimiento basado en el planteamiento del punto anterior.

Sinatua: Amaia Martin Garin,

Fdo.: Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea”.

Portavoz de Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martín Garín andreak, Juan Ramón Viles Mitxelena jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Juan Ramón Viles Mitxelena, Dª. Miren Albistur Garmendia y Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**III.2.3. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Anoetako Kiroldegiari buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2015eko irailaren 14ko Ogasun Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko irailaren 14an izandako Ogasun Batzordean, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak erantzun zuen Anoetako Kiroldegiak bere gain hartuko dituela estadioa eraberritzeko lanak eta, beraz, ez duela eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharrik izango.

**III.2.3. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre Anoeta Kiroldegia .**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control consecuencia de la interpelación realizada en la Comisión de Hacienda el pasado día 14-09-2015.

JUSTIFICACION

En la Comisión de Hacienda del pasado día 14.09.2015, el Concejal Delegado de Hacienda respondió que, dado que se pretende que sea Anoeta Kiroldegia quien asuma la reforma del estadio, ésta no estaría sujeta al pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones

y Obras.

Alabaina, Udalak eta Realak 1993. urtean sinatutako hitzarmeneko hamaikagarren klausulako 1. puntuak honela dio: "Real Sociedad de Futbol SADen kontura izango dira estadioa federazioaren xedapen eta akordioen arabera jartzeko egin beharreko eraberritze gastu guztiak. Haren kontura izango dira, orobat, erabilera jarraituaren ondorioz joko zelaian egin beharreko eraberritze lan guztiak, bai eta teknika, kirol eta halako arrazoien ondorioz egin beharreko eraberritze lanak ere. Anoeta Kiroldegiaren kontura izango dira, ostera, gertatzezko eraberritze lanen ondorioz sortutako gastuak, jabetzari egotzi beharrekoak direnez gero.

No obstante, el punto 1. de la cláusula decimoprimera del convenio firmado entre el Ayuntamiento y la Real Sociedad en 1993, establece que: "Serán por cuenta de la Real Sociedad de Fútbol S.A.D. todos aquellos gastos de reforma ocasionados por la adaptación del Estadio a las disposiciones y acuerdos federativos. Asimismo serán por su cuenta todos aquellos gastos de reforma del terreno de juego ocasionados por el uso continuado y todas aquellas reformas derivadas de razones técnico-deportivas, etc. Corresponderán a Anoeta Kiroldegia-Ciudad Deportiva de Anoeta S.A., los gastos que se ocasionen como consecuencia de reformas sobrevenidas imputables a la propiedad".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

KONTROL MOZIOA

- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari bete dezala 1993. urtean Anoetako estadioa erabili eta ustiatzeko Realarekin sinatu zuen lankidetza hitzarmena eta, ondorioz, eraberritze lanei dagokien zerga araudia.

Sinatua: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

MOCION DE CONTROL

- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que cumpla con el "Convenio de colaboración con el club "Real Sociedad de futbol S.A.D" para el uso y explotación del estadio de Anoeta" suscrito en 1993, y en consecuencia la normativa fiscal que se derive de la reforma del mismo.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Martín Ibabe Eceiza jaunak, José Luis Arrúe Pintó jaunak eta Josu Ruiz Martín jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Martín Ibabe Eceiza, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**III.2.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Bulebarreko Kioskoaren azpiko lokalari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta mozio hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Zerbitzuak) 2015eko irailaren 14an izan zuen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren 5ean, Bulebarreko kioskoaren azpia garbitu zuten udal zerbitzuek, Aste Nagusiko ekitaldietarako tokia izan zedin, esanez lokal hori Udalarena dela eta ez dagoela ezeren kontrolik gabe erabiltzerik.

Garbiketa hura egitekoan, Kaleratzeak Stop-en eta beste kolektibo batzuen materiala kendu egin zuten handik, ezeren abisurik bidali gabe hori baino lehen haiei. Kolektibo horiek altruismoz lan egiten dute, eta ez daukate baliabide handirik egiten duten lana egiteko. Beraz, garbi dago material horrek asko balio duela haientzat. Guk uste dugu, abisatu egin behar zitzaiela kolektibo horiei lokala garbitzera zihoazela, materiala beste toki batera eramateko modua behintzat izan zezaten, goiz guztia haien materialarekin zer gertatu zen peskizan ibili beharrean.

**III.2.4. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los bajos del Kiosco del Boulevard.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su tratamiento en Pleno, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el dia 14 de Septiembre de 2015.

JUSTIFICACIÓN

El 5 de agosto los servicios municipales realizaron una limpieza de los bajos del Kiosco del Boulevard con el objetivo de hacer espacio para actividades de Semana Grande, alegando que “este local es del Ayuntamiento y que no se puede utilizar de forma descontrolada”.

Durante esa limpieza se desplazaron materiales de colectivos sociales como Stop Desahucios y otros sin que mediara ningún aviso previo a los mismos. Esos colectivos trabajan de forma altruista, y tienen muy pocos recursos para desarrollar su labor, con lo cual está claro que ese material es valioso para los mismos. Consideramos que se debería haber avisado a esos colectivos de que se iba a proceder a la citada limpieza para que hubieran podido trasladar su material, en lugar de pasar toda la mañana averiguando qué había pasado con él.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Esaten ari garen kolektiboarekin bilera egin eta gero, berriz ere lokala erabiltzen uztea erabaki zuen Udal Gobernuak, hau da, ordu arte erabiltzen zuen bezala erabiltzen uztea lokala Stop Kaleratzeak kolektiboari. Izan ere, lehen eta orain modu berean erabili baitu lokala talde horrek: udaletxean diren udaltzainei giltza eskatu, eskatzen duenaren nortasuna agiria han utzi eta giltza entregatu lokala erabili eta gero.

Hori dela eta, hauxe da Irabazi Donostia udal taldeak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio kioskoaren azpiko lokala erabiltzen duten taldeei abisatzeko Udalak lokala hustu beharreko zerbait egin behar duen bakoitzean; eta, abisatu ere, talde horiek lokalean duten materiala beste toki batean gordetzeko behar adina denborarekin abisatzeko.

- Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio kioskoaren azpiko lokala erabiltzen uzteko eskatzen duten plataforma eta kolektiboei, lokala erabiltzeko arauak haiekin batera erabakita, lokalak horrek gizarte erabilera bat izan dezan hartara.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia."

Tras una reunión con el colectivo, el Gobierno Municipal decidió nuevamente volver a posibilitar el uso, tal y como se venía haciendo hasta entonces por parte de Stop Desahucios. Este colectivo ha utilizado antes y ahora los locales del mismo modo; solicitando la llave a la guardia municipal que está en el Consistorio, dejando el DNI bajo custodia de la Guardia Municipal durante el tiempo de uso de la llave y devolución posterior tras su uso.

Por tanto, el Grupo Municipal Irabazi Donostia presenta la siguiente MOCION DE CONTROL:

- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a informar a los colectivos que usan los bajos del kiosco cada vez que el ayuntamiento proceda a realizar actuaciones en estos bajos que requieran su vaciado. El aviso deberá de ser con la antelación suficiente para que estos colectivos puedan poner a resguardo el material que allí tienen.

- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a facilitar el espacio de los bajos del kiosco a aquellas plataformas y colectivos que así lo soliciten, acordando con las mismas las reglas de uso, de modo que se garantice que este local tenga una utilidad social.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Loïc Alejandro jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, José Luis Arrúe Pintó jaunak eta Olaia Duarte López andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen en este punto los/las señores/as D. Loïc Alejandro, Dª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, D. José Luis Arrúe Pintó y Dª. Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2.5. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, bizikletak alokatzeko sistemari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoetako Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2015eko irailaren 14an izan zuen bileran bizikletak alokatzeko sistemaz egindako INTERPELAZIOAREN ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian bizikletak alokatzeko abian jarri zen sistema ez da ongi funtzionatzen ari, denok dakigun bezala. Uda pasa da, eta jaso ahal izan ditugun datuek kezka ematen digute. Hori dela eta, iruditzen ekin egin behar zaiola, eta berehala ekin ere.

Lau bizikletatik hiru hondatuta dago, eta horren ondorioz, erabiltzaileek ezin dute zerbitzua jarritako baldintzetan erabili. Zerbitzua behar bezala ematen ari ez

**III.2.5. Moción de control presentada por el Grupo PP sobre el sistema de alquiler de bicicleta.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la siguiente MOCIÓN de CONTROL para su tratamiento en Pleno, consecuencia de la INTERPELACION substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el pasado 14 de Septiembre de 2015, sobre el sistema de alquiler de bicicleta.

JUSTIFICACION

El sistema de alquiler de bicicleta que se puso en marcha la pasada legislatura y como es conocido no está funcionando de manera adecuada. Ha pasado el verano y los datos que hemos podido conocer nos preocupan por lo que consideramos que hay que actuar de manera urgente.

Tres de cada cuatro bicicletas están fuera de servicio, lo que hace que las personas usuarias de este servicio no puedan emplearlo en las condiciones establecidas. Uno de los motivos

izatearen arrazoietako bat bandalismoa da. Bizikletak geltokitik indarrez atera, erabili eta bazter batean botata uzten dituzte.

Jakin ahal izan dugunez, zinegotzi ordezkariak abendura arteko epea eman dio enpresa emakidadunari zerbitzua baldintza egokietan emateko berriro. Baina, batzordeak izan zuen bileran, zinegotzi eskuordedunak esan zuen 2016ko abendu arteko epea eman ziola Gobernuak esleipendunari, zerbitzu duin bat emateko esleipendunak, eta hala egin ezean, begiratuko duela kontratua eten edo zer egiten zuen.

Eskuordedunak emandako erantzunak kezka ematen digu, zeren ez ematen ari diren zerbitzua ez eta itxura ere ez dira batere egokiak. Gainera, eskuordeunak uste badu enpresa honek milioi eta erdi euro bilduko duela, kuoten eta iragarkien bidez, zerbitzua azkeneko hilabete hauetan ematen ari den moduan emanda, erabat deskuidatuta dagoela iruditzen zaigu guri, zeren eta, zinegotziak berak ere aitortzen duen bezala, zerbitzuak gaur egun ez du lortu zerbitzuari eusteko bidea izateko pentsatu zen mailara iristerik. Era berean, esan dezagun ezin konta ahala kexu sartu dela zerbitzu hau dela eta, nahiz eta datu zehatzik ez zuten eman batzordean.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren kontrol mozioa:

AURRENA: Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio zerbitzu honen bideragarritasun eta jasangarritasun txosten bat aurkezteko urtea bukatu baino lehen Udaleko taldeei Gune Publikoetako Batzordean.

por los que el servicio no se está prestando en las debidas condiciones es el vandalismo, arrancan las bicicletas de las estaciones hacen uso de ellas y las abandonan en la vía pública.

Según pudimos conocer la Concejala Delegada se dio un plazo hasta el mes de diciembre para que la empresa concesionaria restableciera en las debidas condiciones el servicio. Sin embargo, celebrada la comisión la Delegada manifestó que el gobierno daba un margen a la concesionaria hasta diciembre de 2016 para ofrecer un servicio digno o se valorará rescindir el contrato.

La respuesta de la Delegada nos preocupa ya que el servicio que se está prestando no es el adecuado y la imagen no es la deseable. Además si la delegada considera que la empresa va a contar con de casi millón y medio de euros a través de las cuotas y por publicidad, en las condiciones en las que en los últimos meses se está prestando el servicio, consideramos que es un planteamiento erróneo, ya que como ella reconoce a día de hoy aún no se han alcanzado los niveles previstos en un inicio para que este servicio sostenible. Asimismo, son innumerables las quejas que se han formulado con respecto a este servicio, dato que por cierto no fue facilitado en la Comisión.

Por todo ello, el Grupo Popular presenta la siguiente Moción Control:

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia - San Sebastián insta al Equipo de Gobierno Municipal a presentar un informe de viabilidad y sostenibilidad antes de fin de año a los Grupos en la correspondiente Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

BIGARRENA: Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Udaleko taldeek eta Mugikortasuneko teknikariek txosten hori aztertu eta eztabaidatutakoan, zerbitzua behar bezala emateko hartu behar diren neurriak hartzeko.

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia - San Sebastián insta al Equipo de Gobierno Municipal a que una vez estudiado y debatido el informe por parte de todos los Grupos Municipales y los Técnicos de movilidad se adopten las medidas necesarias para adecuar la prestación de este servicio en la condiciones que corresponden.

Donostian 2015eko irailaren 18an

En Donostia/San Sebastián, a 18 de Septiembre de 2015

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, José María Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Pilar Arana Pérez andreak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, Dª. Pilar Arana Pérez y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**III.2.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Arte Ederren eraikinari buruzkoa.**

**III.2.6. Moción de control presentada por el Grupo PP sobre el edificio Bellas Artes.**

"Talde popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko

"Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular al amparo del vigente artículo 98 del

98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Ogasuneko Batzordeak 2015eko irailaren 14an izan zuen bileran Arte Ederren eraikinaren gainean egindako INTERPELAZIOAren ondorioz.

Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la siguiente MOCIÓN de CONTROL para su tratamiento en Pleno, consecuencia de la INTERPELACION substanciada ante la Comisión de Hacienda, celebrada el pasado 14 de Septiembre de 2015, sobre el edificio Bellas Artes.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACION

Arte Ederren eraikinak 30 urte darama itxita, eta gero eta itxura dekadente eta kezkagarriagoa du. Hori dela eta, lehenbailehen zerbait egin behar dela iruditzen zaigu.

El edificio Bellas Artes lleva 30 años cerrado y cada vez presenta una situación más decadente y preocupante, por lo que consideramos que hay que actuar a la mayor brevedad.

Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak babestutako eraikin honekin lotutako azken gertakariak kupularen narriadurarekin lotuta daude; izan ere, Udalak kupula konpontzen parte hartuko ote duen edo ez duen erabaki gabe baitago oraindik.

Los últimos hechos relacionados con este edificio, protegido por el Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián y el Gobierno Vasco, están relacionados con el deterioro de la cúpula que está pendiente de la decisión a tomar por parte de este ayuntamiento en la reparación o no de la misma.

Esaten ari garen eraikinaren inguruan zer gora-behera dagoena kontuan izanik, Talde Popularrak uste du erabaki bat hartu behar dela eraikin horri etorkizunean emango zaion erabileraz. Horretarako, bi erakundeetan gobernatzen duten alderdi politikoek desblokeatu egin behar dute egoera.

Dadas las circunstancias en las que se encuentra este edificio desde el Grupo Popular consideramos que hay que tomar una decisión de cuál va a ser el futuro uso de este edificio y para ello es necesario que los partidos políticos que gobiernan en ambas instituciones desbloqueen esta situación.

Horrez gain, gogoratu behar da udal honek eraikinaren jabetzak eginiko erreklamazio bat duela eskuartean, jabetzarekin batera aztertu beharko dena, alde guztientzako irtenbiderik onena aurkitzen saiatzeko.

Además hay que recordar que este ayuntamiento tiene una reclamación por parte de la propiedad cuestión que habrá que abordar con ella para tratar de alcanzar una solución satisfactoria para todas las partes.

Azkenik, bistakoa da komeniko litzatekeela irtenbide hori 2016ko Europako Kultur Hiriburutza hasi baino lehen iristea.

Finalmente es evidente que convendría que esta solución llegara antes del inicio de la capitalidad cultural europea 2016.

Ogasuneko Batzordeak izan zuen bileran,

En la Comisión de Hacienda el Alcalde, Eneko

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eneko Goia alkateak esan zuen eraikinari zerbaiten erabileraren bat ematearen aldekoa dela hura, baina ez zaiola iruditzen kulturarakoa izan behar zuenik, hiri honek gaur egun kulturarako dituen ekipamenduak eta Arte Ederren eraikinaren inguruan izango diren beste toki batzuk aintzakotzat hartuta. Era berean, eraikinaren jabeek Udalaren kontra apirilean sartutako erreklamazioaren inguruan ere udalaren interesak defendatzearen alde azaldu zen, SADEk erreklamatzen dituen 13,7 milioi euro ordaindu beharrik ez izateko.

Goia afirmó que era partidario de darle un uso a este edificio, si bien, no creía que su uso debiera ser cultural, dados los equipamientos culturales de los que dispone esta ciudad en este momento y los espacios nuevos que se van a crear en un futuro en el entorno. Asimismo, con respecto a la reclamación presentada por la propiedad contra este ayuntamiento en el mes de abril se mostró partidario de defender los intereses de este ayuntamiento para no tener que abonar la cantidad de 13,7 millones de € que reclama la SADE.

Alegia, 30 urte itxita daramatzan eraikin bat dela, hondatuta dagoela oso, erakundeek babes gradu bat aitortu diotela eta jabeak 13,7 milioi euro erreklamatu dizkiola Donostiako Udalari.

En definitiva se trata de un inmueble que lleva 30 años cerrado, que su deterioro es considerable, protegido por las instituciones y con una reclamación dineraria de la propiedad al Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián que de 13,7 millones de €.

Hori dela eta, hauxe da nire kontrol mozioa:

Es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente Moción Control:

AURRENA: Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio urtea bukatu baino lehen esateko partikular batena den eraikin honek haren ustez zer erabilera izan behar lukeen, eta erabilera hori izateko hartu behar diren neurriak hartzeko.

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia - San Sebastián insta al Equipo de Gobierno Municipal a que antes de finales de año fije su postura en cuanto a los usos de este inmueble de propiedad privada y adopte las medidas pertinentes que los hagan posibles.

BIGARRENA: Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio —Eusko Jaurlaritzaren lankidetza bildu, hala badagokio, eta Udalari berez dagozkion interesak defendatzeari uko egin gabe, betiere — begiratzeko ea aukerarik dagoen eraikinaren jabearekin negoziatu eta epaitegitik kanpoko konponbideren bat aurkitzeko.

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia - San Sebastián insta al Equipo de Gobierno Municipal con la colaboración del gobierno Vasco en su caso, sin renunciar a defender a los legítimos intereses del Ayuntamiento, a que explore la posibilidad de abordar una negociación encaminada a alcanzar una solución extrajudicial con la propiedad del inmueble.

Donostian, 2015eko irailaren 18an

En Donostia/San Sebastián, a 18 de Septiembre de 2015

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martín Garín andreak, Ricardo Burutarán Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Martín Garín, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**6. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

--------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hondartzako futbola dela-eta.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, UdalBatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, haurren hondartzako futbola dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2015ko irailaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2014-2015 denboraldian, neska eta mutilen artean abian jarritako berdintasun irizpideei esker, hondartzako futbolean, neskek jokatu ahal izan zuten historian lehen aldiz.

Donostia Kirolak, Foru Aldundiarekin, Arartekoarekin eta gurasoekin bat eginik, sexuaren araberako diskriminazioa saihesteko eta neskek egiten duten kirolari presentzia publiko handiagoa emateko neurriak hartu zituen, futbola praktikatzen den eremu publikoetan, eta bereziki Kontxako hondartzan, berdintasunezko irizpideak jarraituz gizonen eta emakumeen txapelketak egiteko garaian.

Beraz, Donostia Kirola lanean hasi zen alor honetako eragile guztiekin (ikastetxeak, Foru Aldundia, federakuntza…) mutil eta neskentzako berdintasunezko lehiaketa osatzeko konponbidearen bila.

Hauxe izan zen aurkitutako konponbidea: txapelketak, sexuaren arabera banatu ordez -ordura arte egiten zen bezala-, hondartzakoen eta belar artifizialeko

**III.2.7. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el fútbol playa.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios para la Personas, celebrada el pasado 14 de septiembre, sobre el fútbol playa.

JUSTIFICACIÓN

En la temporada 2014-2015, gracias a los criterios implementados en materia de igualdad entre chicos y chicas, por primera vez en la historia, las chicas tuvieron la oportunidad de jugar en el torneo de fútbol playa.

Donostia Kirola, junto con la Diputación Foral, el Ararteko y diversos padres y madres, adoptaron varias medidas para evitar la discriminación por razón de sexo y para dar una mayor presencia al deporte femenino, estableciendo criterios de igualdad en los campeonatos de hombres y mujeres en todos los ámbitos públicos en los que se practica el fútbol y, muy especialmente, en la playa de la Concha.

Para ello, Donostia Kirola comenzó a trabajar con todos los agentes de este ámbito (centros escolares, Diputación Foral, federación…) en busca de una solución para organizar un campeonato igualitario entre chicos y chicas.

La solución alcanzada fue la siguiente: distribuir los campeonatos entre los de playa y los de césped artificial en lugar de distribuirlos en función del sexo, como se venía haciendo

zelaietakoen artean banatzea.

Konponbide hark, mutil zein neskentzako berdintasunezko lehiaketa lortzeaz gain, beste zenbait kirolen eskaerei ere erantzun zien (eskubaloia edo belar hockeya, adibidez), egutegien antolaketa berriak futbol-8 eta Donostiako alebinek egiten duten bigarren kirolarekin koordinazioa erraztuko baitzuen.

2014-2015 ikasturtean abian jarritako esperientziak arrakasta izan zuen eta berdintasuna bermatu zuen. Gai hau irailaren 14ko aipa udal batzordean erabat argi geratu ez zenez eta emandako aurrera pausuak ez zapuztu ahal izateko mozio hau aurkezten dugu.

ERABAKIA

1- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hondartzako futbolean 2015-2016 ikasturtean aurreko denboraldian berdintasuna bermatzeko eman ziren pausoak berma ditzan eta, ahal bada, areagotu ditzala.

Donostian 2015eko irailaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

hasta entonces.

Con aquella solución no sólo se consiguió un campeonato igualitario entre chicos y chicas sino que, además, se dio respuesta a las demandas existentes en otros deportes como balonmano o hockey hierba, ya que facilitaba la coordinación con el fútbol-8 y con el segundo deporte que practicaban los y las alevines de San Sebastián.

Esta experiencia puesta en marcha en el curso 2014-2015 tuvo un gran éxito y garantizó la igualdad. Sin embargo, consideramos que este extremo no quedó suficientemente claro en la comisión de pleno que se celebró el pasado 14 de septiembre. Por ello, y con el fin de que no se eche a peder lo que se ha avanzado hasta ahora, presentamos la siguiente

MOCIÓN

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que, durante el curso 2015-2016, se afiance y, a ser posible, se incremente todo el avance que se produjo la temporada anterior en el fútbol playa.

En Donostia, a 18 de septiembre de 2015

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Josu Ruiz Martín jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**III.2.8. EH BILDU Taldeak aurkeztutako kontroleko mozioa zuzendarien euskara eskakizunak direla-eta.**

**III.2.8. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU relativa a los requerimientos de euskera de los directores.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales, el 14 de septiembre de 2015.

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko irailaren 14an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFICACIÓN

